



# **Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua**



# AURKIBIDEA

---

<b>0.Sarrera</b>	<b>3.orr</b>
<b>1. Ikastetxeko testuinguruaren azterketa</b>	<b>3.orr</b>
<b>2. Printzipioak, balioak eta nortasun-ezaugarriak</b>	<b>5.orr</b>
<b>3. Helburuak eta lehentasunak</b>	<b>6.orr</b>
3.1. Helburuak	6.orr
3.2. Lehentasunak	7.orr
<b>4. Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak</b>	<b>9.orr</b>
<b>4.1. Curriculumaren esparrua</b>	
4.1.1. Metodologia-aukerak	9.orr
4.1.2. Ebaluazioa	10.orr
4.1.3. Hezkuntza-eskaintza	10.orr
4.1.4. Aniztasunari erantzutea	10.orr
4.1.5. Orientabidea eta tutoretza	11.orr
4.1.6. Hizkuntzen erabilera eta tratamendua	12.orr
4.1.7. Prestakuntza eta berrikuntza	13.orr
<b>4.2. Antolamenduaren esparrua</b>	
4.2.1. Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa	14.orr
4.2.2. Parte hartzeko eredia	17.orr
4.2.3. Bizikidetzak	17.orr
<b>5. Iraunaldia</b>	<b>17.orr</b>

# **0.SARRERA**

Esku artean daukazun dokumentua CEIP ZALDIBAR HLHI aren hezkuntza proiektua da. Dokumentu honen helburua ,hezkuntza arloarekin erlazionatuta dauden gai guztiak batu eta koherentziaz tratatzea da.

Txosten hau, hezkuntza komunitateko partaide ezberdinek, guraso, ikasle, ez irakasle eta irakasleek elkarrekin burututako dokumentua da.

Dokumentu hau, eskolari izaera ematen dion dokumentu ireki, bizi, dinamiko eta nagusia da. Eskolako ibilbidea laburbiltzen duen dokumentua ,alegia.

Hezkuntza komunitate osoaren partaidetza eta iritziak kontutan hartuta honako hauek dira gure lehentasunak:

- Komunitate osoak parte hartzea eta denon iritziak kontutan izatea.
- Ikastetxeak egitura argi eta zehatzak izatea.
- Inguruaren beharretara egokitzea.
- Hobekuntza estrategiak bideratzea.

## **1. IKASTETXEKO TESTUINGURUAREN AZTERKETA**

### **1.1 Ikastetxearen testuinguruaren eta ibilbidearen azterketa.**

CEIP ZALDIBAR HLHI ikastetxea Zaldibarko herrian kokatuta dago. Herria auzune ezberdinez eta herriguneaz osatuta dago.

Hezkuntza eskaintzari dagokionez eskaintza bakarra da, bai sare publikoan baita pribatuan ere. Zaldibarko eskola D ereduko eskola da . Hala ere bere aurrekariak ikusita A, B eta D ereduak izan dituen eskolatik, D eredua soilik izatera pasatu den eskola da.

Eskolaren esparrua apurka apurka garatzen joan den proiektua izan da. Gelak herritik sakabanatuta egotetik, eskola esparrua hiru eraikinetan kokatzera pasatu da.

Eskola eremuaren ondoan herriko haur eskola ere badago eta guztien artean hezkuntza esparru egoki bat osatzen dugu. Eskolak, frontoia eta kiroldegia ere badauzka bere esparruetan. Eraikin bi hauek eskolaz kanpoko orduetan eskolako eta herriko talde ezberdinek erabiltzen dituztelarik.

Herriak haur eta lehen hezkuntzako eskaintza du soilik, DBH egitera lurretako Juan de Orobigoitiara doazelarik.

Esan dezakegu eskola bi lerrorantza doala nahiz eta maila batzuetan gela bakarra izan. Irakaslegoari dagokionez, plantilla nahiko finkoa dugu. Egonkortasun honek eskolako jarduera ildoak bermatzen dituelarik.

Maila sozio-ekonomikoari dagokionez, egoera ezberdinetako familiak dauzkagu, beraz anitza da gure familien egoera.

Ekonomia arloari dagokionez, herri industrialia da eta landa eremu ugari ditu. Eragile gehienen parte hartzea ez da nahiko, hala ere, gure erronketako bat eskola herrira hurbiltzea da, herriarekin elkarlan estu batetan aritzea.

Kanpoko eta barneko eragileekin dugun harremana dinamikoa eta hurbila da, beharraren arabera beraiekin batzartuz. Batzar hauek orokorrean honako kanpo erakundeekin izaten dugu: Udaletxeko euskara eta berdintasun teknikariarekin, amankomunazgoko langileekin (EISE proiektua) eta osasun zentroko pediatriarekin.

Arlo pedagogikoari dagokionez, B09 aren hurbileko harremana dugu non eskolan edo berritzegunean formakuntzak jasotzen ditugun.

## **1.2 Hezkuntza beharren azterketa, ikasleen ikaskuntza-emaitzetan oinarriturik.**

- Ikasleei era gero eta autonomoagoan lan egitea eskatzea.
- Metodo zientifikoak eskatzen dituen faseak aurrera eramatea: hipotesiak botatzea, egiaztatzea, eztabaidatzea eta ondorioztatzea.

## **1.3 Ikastetxearen hezkuntza-praktika orokorraren eta antolakuntzaren azterketa.**

Eskolaren lan dinamika talde txikietan aritzekoa da horregaitik klaustrakide guztiak 4 zikloetan banatzen ditugu, hau delarik eskolako erabakiak hartzeko guneetako bat.

Batzorde pedagogikoa ere 4 azpitaldetan banatzen da, talde bakoitzak bere koordinatzailea duelarik.

Hezkuntza komunitate osoaren partaidetza eta iritziak kontutan hartuta honako hauek dira gure lehentasunak:

- -Komunitate osoak parte hartzea eta denon iritziak kontutan izatea.
- -Ikasleek ikasketa esanguratsuak bere kabuz garatzeko aukera izatea.

- -Ikastetxeak egitura argi eta zehatzak izatea.
- -Inguruaren beharretara egokitzea.
- -Hobekuntza estrategiak bideratzea.

## 2. PRINTZIPIOAK, BALOREAL ETA NORTASUN EZAUGARRIAK

---

### 1-EUSKALDUNA:

Gure eskola D eredukoa denez euskara da gure hezkuntza eta komunikazio hizkuntza. Euskara ardats nagusi hartuta hirueleaniztasunerantz (euskara, gaztelania, ingelera) doan eskola da.

### 2-HEZKIDETZA –BIZIKIDETZA, ALDERDI AFEKTIBOAK GARATZEN DUENA.

Berdintasunean hezteko eskubidea oinarri hartuta ez dugu sexu bazterketarik, tratu txarrik ezta arrazakeririk onartuko.

Eukal Herriko eta bereziki Zaldibarko **KULTUR ONDAREA** eta tradizioak ezagutu, baloratu eta aintzat hartzen dituena. Guzti hau, beste kulturak eta ohiturak errespetatuz eta herriko eragileekin elkarlana bultzatuz.

### 3-PARTE HARTZAILEA

Eskolako eragile guztiekin (udala, osakidetza) harremanak sustatu eta indartuko dituena. Herrira zabalik dagoen eskola.

### 4-INKLUSIBOA- HEZIKETA INTEGRALA

Eskola inklusiboa, guztientzat hezkuntza integrala bermatuko duena eta aniztasunari erantzungo diona.

Jatorrizko herrialdea, kultura, zailtasunak eta gaitasunak edozein direlarik, mundu guztia onartzen duen eskola.

### 5-AKONFESIONALA -BALIO ETIKOEN SUSTATZAILE

Zaldibarko familien aniztasuna ikusirik eskola akonfesionala nahi dugu, giza baloreen sustatzaile.

### 6-UNIBERTSALA

Herri ekimenak oinarri izanda, beste kultur batzuk ezagutzeko, errespetatzeko eta bizikide izateko, kultura artekotasuna bultzatuko duen eskola nahi dugu.

### 7-ESKOLA JASANGARRIA

Kontsumo jasangarrian, iraunkortsunean, bererabileran eta birziklapenean oinarritua.

### 3. HELBURUAK ETA LEHENTASUNAK

---

#### 3.1. Helburuak

**1** **Ikasle euskaldunak sortzea:** Gure hizkuntza zainduz, indartuz eta ahozko erabilera areagotuz, eta inguruko jai, tradizio eta ohiturak ezagutuz.

Ikastetxeko **LEHEN ETA SEIGARREN** printzipio, balio eta nortasun ezaugarriei erantzuten dizkio.

**2** **Ikasle kompetenteak sortzea:** Lortutako ezaguera eta trebeziak sor daitezken helburu eta zailtasunei aurre egiteko erabiliko dituztenak. Etengabe eguneratzen joango diren pertsonak, profesional eraginkorrak, herritar parte hartzaile eta solidarioak eta batez ere zoriontsuak.

Ikastetxeko **BIGARREN, HIRUGARREN, LAUGARREN ETA BOSGARREN** printzipio, balio eta nortasun ezaugarriei erantzuten dizkio.

**3** **Ikasleak modu kolaboratiboan ikasleak taldean lan egiteko prestatzea.**

Ikastetxeko **BIGARREN, LAUGARREN ETA BOSGARREN** printzipio, balio eta nortasun ezaugarriei erantzuten dizkio.

**4** **Ingurumenarekin eta gizartearekin konpromisoa hartutako ikasleak izatea.**

Ikastetxeko **LAUGARREN, BOSGARREN ETA ZAZPIGARREN** printzipio, balio eta nortasun ezaugarriei erantzuten dizkio.

## 3.2. Lehentasunak

---

Eskolako lehentasunen artean ikaste prozesuan hiru osagaiak kontutan izango ditugu: kognitiboa, soziala eta afektiboa.

Hiru arloak maila berean garatuko dira, ikasketa esanguratsua eta metakognitiboa izan dadin.

**GARAPEN AFEKTIBOA:** autokonfiantza eta oreka emozionalean oinarrituta, jarrera aktiboa eta eraikitzailea garatu.

- Haurrei beraien gaitasun emozional eta afektiboak eta trebetasunak gogoratu, sor daitezken zailtasunei aurre egiteko gai izan daitezen eta bere buruaren irudi positiboa eta benetakoa eratzeko.
- Bakoitzak bere ezaugarriak eta baliabideak baloratzen ikastea bere buruarengan konfiantza izan dezan.
- Lortutako aurrerapenak ikusten lagundu.
- Bere beharrak ezagutzen erakutsi inguruko premiengan pentsatu ahal izateko.
- Baikorrak izaten erakutsi eguneroko bizitzari aurre egiteko.
- Gauzak lortzeko prozesuan pazientzia edukitzen trebatu, azken helburua lortzeko pausu txikiak eman behar direla erakutsiz.

**GARAPEN SOZIALA:** elkarrekin bizitzen ikasi eta talde lana egiteko gaitasuna garatu.

- Indarkeriarik gabe gatazkak konpontzeko proposamen eta jarduerak bultzatzea.
- Gauzak guztion artean erabakitzeke aukera izatea, ezarritako arauak errespetatuz.
- Elkarrizketaren eta bitartekaritzaren bidez, gauzak eraldatzeko eta guztien artean ingurune erkide jasangarri bat eraikitzea.
- Modu kolaboratiboan elkar laguntzea.
- Ikasleen arteko lankidetzak bultzatzea.
- Ikasleei baliotsu sentiaraztea.

**GARAPEN KOGNITIBOA:** ikasten eta pentsatzen ikasi, ikasitakoa eguneroko erronkeei aurre egiteko erabili.

- Jakin-mina sortu:
  - Ikasteko motibazioa, interesa eta zailtasunak gainditzeko nahia suspertu.
  - Familia, natura eta gizarte ingurunea behatzeko, aztertzeke eta ezagutzeko interesa izatera bultzatu.
  - Metodo zientifikoak eskatzen dituen faseak aurrera eramatea: hipotesiak botatzea, egiaztatzea, eztabaidatzea eta ondorioztatzea.
- Pentsatzen ikasi:
  - Arazo egoerak identifikatu, deskribatu eta irtenbideak planteatu.

- Trebetasun logiko-matematikoak lortzen eta irakurketa-idazketan trebatzen lagundu inguruan duen mundua uler eta interpreta dezan.
- Ikaskuntza autonomia bultzatu:
  - Jarduerak modu autonomoagoan betetzen ikasi izandako lorpenekin pozik dagoela adieraziz.
  - Eginkizunak gauzatzeko edo arazoak konpontzeko, norberaren ekintzen plangintza egitea.
- Ikasten ikasi:
  - Informazioari aurre egiteko, esanahi bat emoteko, interpretatzeko, ekintzak planifikatzeko eta arazoak konpontzeko baliabideak, trebetasunak eta estrategiak aurkitzen ikasi.
  - Gertakarien ondorioak identifikatzea eta ezagunak diren ideietatik ideia berriak ondorioztatzera eraman.
  - Ikasketa kontzientea eta metakogniziora bideratutako ikaskuntza.
- Ikasketak autokontrolatzeko gaitasuna:
  - Ikas-prozesuan parte hartu, egindakoa baloratu, zailtasunak antzeman eta hobetzeko behar diren aldaketak egin.
- Informazioaren trataera:
  - Informazioa, bilatzen, aukeratzen eta modu kritikoa erabiltzen ikasi.
- Hizkuntzak:
  - Zenbait hizkuntzatan eta adierazpenetan komunikatzeko gaitasunak garatzea, errealitatea adierazteko, norberaren jokabidea arautzeko, harremanetarako eta pentsamenduak, sentimenduak, bizipenak eta abar adierazteko.
  - Euskarazko eta gaztelaniazko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak ondo ulertu, adierazi eta edozein komunikazio egoeretan erabiltzeko gai izan.
  - Atzerri hizkuntza batean (ingelera) oinarrizko testuak eta mezuak ulertu eta ekoizteko gai izan.
- Teknologia:
  - Zientzia eta teknologiaren garapen faseak ezagutu.
  - Teknologiako tresnak erabiltzea eta tresna horiek komunikatzeko duten gaitasuna haintzat hartzea, informazio eta ikaskuntza iturri giza erabiltzeko.
  - Teknologia berriak ekartzen dituzten ikasketa metodo berriak ezagutu eta ahal den neurrian aplikatzen ikasi.



## 4. CURRÍCULUMAREN ETA ANTOLAMENDUAREN ESPARRUETAKO AUKERAK

### 4.1. Curriculumaren esparrua

---

#### 4.1.1 Metodologia-aukerak

Gure eskolako metodologiaren xedea ikasleek oinarritzko kompetentziak lortzea izango da.

Jakintza eraikitzen den prozesu bat denez, gure eskolan konstruktibismoan (**Haur Hezkuntza**) eta proiektu globalizatuetan (**Lehen Hezkuntza**) oinarritutako lan metodologiak eramango ditugu aurrera ikaskuntza prozesuaren laguntzaile delarik. Bide honetan aintzat hartuko dira ikasle ororen ikasteko erritmo ezberdinak, baita ere beraien interesak eta motibazioak.

Ikasleak bere ikaste prozesuaren ardura hartu beharko du, prozesua autoerregulatzen ikasi behar du egitekoa planifikatuz eta hobetu beharreko alderdiak identifikatuz.

Kompetentziak garatze bide honetan arazo egoeretan oinarritutako ikaskuntzak eramango dira aurrera, esperientzia eta praktika bateratzen duena, ikaslearen ikaskuntza esanguratsua izan dadin. Ikaskuntza prozesu honetan izugarritzko garrantzia izango dute **Ikaskuntza Kooperatiboa-Kooperatuz** ikasiko dinamikak, egiturak eta teknikak. Modu kolaboratiboan, elkarri lagunduz eta ikasleen arteko lankidetzak bultzatuz, ikasleei baliotsu sentitu arazten dion metodologia.

Ikasleak, egin egin beharko du ikasteko.

Arazo egoera irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren abiapuntua izatea da gure erronka eta kompetentziak ebaluatzeko oinarria.

Arazo-egoera planteatzean ikasleek, banaka edo taldeka, informazioen multzo bat antolatu behar dute testuinguru baten barruan, zeregin jakin bat egiteko eta alde zuzenetik zein den irtenbidea jakin gabe.

“Esadazu eta, eta ahaztuko dut; erakutsidazu eta gogoratu egingo dut; baina utzidazu parte hartzen eta ikasiko dut” (Txinako esaera zaharra)

### **4.1.2 Ebaluazioa**

Ebaluazio hezitzailea sustatzea, ikasleen ahalmenak eta konpetentzien garapena bultzatzen duena, hausnarketaren ondorioz auto erregulazio egoerak sortzen dituena, auto ebaluazioa zein koebaluazioak bultzatuz.

Ebaluazioa ikasteko eta hobetzeko tresna da.

Ebaluazioa ikasleen formazioan oinarritzen da.

Ebaluazioa, ikaste prozesuaren aldi guztietan egin beharreko ekintza da. Hasieran aurre ezagutzak ebaluatuz eta bukaeran prozesuan izandako emaitza. Prozesu baten ondorio da ebaluazioa eta ez da kalifikazio hutsa.

Ebaluazio hezitzaile honek, ikaste irakaste prozesuan umea zein tokitan dagoen adierazi beharko du. Bertatik abiatuta hobekuntzei ekiteko, autoerregulatzeko alegia. Bide honetan ikasleak izango dira autoebaluazioa eta koebaluazioak egiten dituztenak.

Arazo egoerei irtenbidea ematea izango da ebaluatuko dena.

Ebaluazioa, azken ekoizpen baten bidean jarritako prozesu hezitzailea da. Ekoizpen hau azaldu beharreko lana delarik. Bide honetan ikasitakoak bizitzako beste egoera batzuetara eramateko balio izan behar digu. Tresna ezberdinez egindako prozesua da: lanak, azterketak, behaketak, ekoizpenak eta abar.

### **4.1.3 Hezkuntza-eskaintza**

Hezkuntza eskaintzari dagokionez CEIP ZALDIBAR HLHI herrian dagoen eskaintza bakarra da , bai sare publikoan zein pribatuan. Ikastetxeak duen eskaintza bakarra D eredukoa da. Eskaintza honetan arlo guztiak euskaraz ematen dira, ingelera eta gaztelera arloak izan ezik.

Esan dezakegu eskola bi lerrorantza doala nahiz eta maila batzuetan gela bakarra izan. Eskolaren lan dinamika talde txikietan aritzekoa da horregaitik klaustrokide guztiak 4 zikloetan banatzen ditugu, hau delarik eskolako erabakiak hartzeko guneetako bat.

### **4.1.4 Aniztasunari erantzuna**

Aniztasunari erantzuteko, haur bakoitzari erantzun indibiduala ematen ahalegintzea ezinbestekoa da, horretarako zenbait faktore kontuan hartuz, hala nola, bere ahalmenak eta mugak, bere heldutasun maila, bere beldurrak, beharrak eta interesak. Honela diskriminazioa edota desberdintasunak saihestu egin ahal izango dira. Nork bere burua errespetatzen badu, besteak ere baloratu ahal izango ditu.

Pertsona guztiak ezberdinak garen momentutik taldea eta komunitatea aberasten ditugu, bakoitzak berea aportatzen duelako.

Gizarte aldakor eta kultur ezberdinen artean bizi garen neurrian, eskolak aniztasun hau aberasgarri eta ikasketa iturri moduan kontsideratzen du.

Aniztasun honi erantzuna emateko ikasgela modu kooperatiboan lan egiteko egituratuko dugu. Lankidetzeta edo kooperazioa **aniztasun giroan** garatzen da. Hau horrela izanik, laguntzak gelan emango dira, ikasleak gelako partaide sentitu daitezten.

Ikasketa kooperatiboak **gaitasun pertsonalak, komunikatiboak eta giza-gaitasunak** eskuratzea ahalbidetzen du inguru natural batean.

Egitura kooperatiboak parte hartze ekitatiboa (denei ematen zaie parte hartzeko aukera), aldibereko elkarrekintza (ikuspuntua adierazteko aukera ematen zaie) eta edukiak ikastea taldeko kide guztiak talde lanean arituz.

Ikasketa kooperatiboa ikasle-talde txikien erabilera didaktikoa da. Talde horietan ikasleek elkarrekin lan egiten dute norberaren eta besteen ikasketa maila maximizatzen.

Kooperatzeak elkarrekin lan egitea esan nahi du, helburu komun batzuk lortzearen. Egoera kooperatibo batean, ikasle bakoitzak emaitza onak lortu nahi ditu norberarentzat, baita taldeko gainontzekoentzat ere.

#### **Kooperatzea eta kolaboratzea ez da gauza bera.**

Kooperatzeak solidaritate, adiskidetasuna eta eskuzabaltasun-plusa gehitzen dizkio kolaboratzeari. Horrela, hasieran bakarrik eraginkorragoak izateko kolaboratzen zutenek, kooperatzean, amaieran, lotura afektibo sakona sortzen dute.

Elkarrekin lan egiteak, elkar laguntzeak edo animatzeak, helburu komun bat lortzeko (ikasketan aurreratzea), taldea kohesionatu dezakete.

#### **4.1.5 Orientabidea eta tutoretza**

- Hauen bitartez ikastetxeak ikasleei bere gaitasu, abilezi eta aukerak erabili eta hazten lagunduko die ezberdintasun indibidualak errespetatuz.
- Ikasle guztiei zuzenduta dago. Ikasleek dituzten beharrian eta interes zehatzendako aukera ezberdinak, ikasketa estrategiak, egokitzapen kurrikularrak eta abar emateko. Guztia helburu orokor integratzaileei lotuta.

- Prozesu jarraitu baten antzera ulertu behar da, ikasturtea amaitu arte iraungo duen prozesua.
- Tutoretza lana irakasle talde osoari dagokio, irakasleen arteko lana ezinbestekoa izanik.
- Ikaslea persona moduan ezagutu eta baloratzen lagunduko du.
- Ikasleak ikasketei dagokionez orientatu, beti ere indibidualizazio printzipioak kontutan hartuz.
- Ikasketako ezagutza eta gaitasun estrategikoak norberegantzen lagunduko du.
- Talde zentzua indartuko du talde kohesiorako ekintzak burutuz : iritziak eman, eztabaidatu, arrazoitu eta antolatzeke aukerak eman.
- Familien partaidetza bultzatu eta harremanak sendotuko ditu.

BANAKAKO TUTORETZA: Bigarren eta hirugarren zikloko ikasleekin ezinbestekoak izango dira banakako tutoretzak.

**Ikusi tutoretza planeko dokumentua.**

#### **4.1.6 Hizkuntzen erabilera eta tratamendua**

Eskolako hizkuntza trataeraren helburua, ikasleen hizkuntza konpetentziaren bilakaera bikain bat lortzea da bai euskaraz bai gaztelera, baita atzerriko hizkuntzetako batean konpetentzia on bat lortzea ere. Helburu hau lortzeko, metodo komunikatzaile bat proposatzen da, hizkuntzaren erabilera funtzionala, hots, hizkuntza ikasketa objektu izateaz gain (arau gramatikalak, ortografia, sintaxia, eta abar) ahoz eta idatziz komunikatzeko oinarrizko tresna bezala ulertzen da, baita geure ezagutzak antolatzeke, eraikitzeke eta biltzeke ikasketa tresna bezala ere.

Hizkuntz Proiektua, euskara hizkuntza proiektuaren muina izanik, eskolan irakasten diren beste hizkuntzen arteko garapena eta erabilera koordinatu, adostu eta zehazten dituen tresna da. Hizkuntza bakoitzak berezkoa duena landuko da, eta denek berdina dutena partekatu.

D ereduko ikastetxea denez, euskara da hizkuntza nagusia eta gaztelania Lehen Hezkuntzako lehen mailatik aurrera irakasten da, ingelesaren irakaskuntza goiztiarra delarik (4 urtetatik aurrera).

Euskara eta euskal kultura sustatzen duen eskola.

Ikasleriaren familiei dagokienez oso familia gutxitan dira guraso biak euskaldunak, honek ikasleen euskara maila hobetzea helburu nagusizat hartzera bideratzen gaituelarik.

Ikastetxean eta herrian, denon arteko euskararen ahozko erabilera areagotuz ezagutza maila hobetzea helburu duen eskola.

Hezkuntzan denok garenez eragile, denok daukagu egin beharra, gurasoek, herriak, udalak eta eskolak. Hauek danak planteatzen dituzten ekintzak euskaraz izango direlarik.

Euskara oinarri duen ereduak abiatuta ikasle eleanitzak sortuko dituen.

#### **4.1.7 Prestakuntza eta berrikuntza**

Oinarrizko konpetentziak garatze bidean etengabeko formakuntza oinarri duena: **Prestakuntza** prozesua hezkuntza-jardueretan eta irakasleen garapen profesionalean oinarrituko da, baina beti ere ikastetxeko premiei egokituta.

Irakasleriak etengabe ikasten jarraituko du ikastetxeak hobera egin dezan. Horretarako ikastetxeak erreztasunak emango ditu bertan parte hartzeko.

Prestakuntza prozesu honen bitartez etengabe eguneratzen joango da, gizarte trebetasunei eta alderdi emozionalei arreta eskainiz, konpetentzietan oinarriturik.

Prestakuntza honen bitartez ikasleei egunero izango dituzten egoerei aurre egiteko behar dituzten gaitasunak (pentsatzen, ikasten, komunikatzen, norbera izaten, besteekin batera bizitzen, elkarlanean aritzen, planifikatzen, teknologia berriak erabiltzen..) garatzen lagunduko dizkie.

Irakasle eta ikasleen etengabeko formakuntza bideratuko duena, ikastaro, hitzaldi eta formakuntza ezberdinetara joateko aukera ematen duena.

Etengabeko prestakuntza honen ondorioz, ikastetxean **berrikuntza** prozesuak jarriko dira martxan (curriculum, metodologia, antolamendua, eskola komunitatearekin elkarlana, gelan lan egiteko era...).

**Urteko Planean ikasturte bakoitzaren barruan zeinetan hartuko dugun parte aipatuko da.**

## **4.2. Antolamenduaren esparrua**

---

### **4.2.1 Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa**

#### **Zuzendaritza Taldea**

Ikastetxeak hobera egitea eta Eskola komunitatearen ongizatea eta elkarlanaz arduratuko da.

Talde guztien lotura egingo du. Beste taldeek egin behar dutena proposatu, bideratu eta jarraituko du. Bera arduratuko da erakundeekin harremanetan egoten eta Eskola Komunitateko beste taldeei dagokien informazioa hel arazten.

Ikastetxearen berrikuntzarako planak prestatu eta aurrera eramateko taldeak eratzeaz eta hauen lanen jarraipenaz ere arduratuko da.

#### **Batzorde Pedagogikoa**

Kontsultoreak, zikloetako koordinatzaileak eta ikasketa buruak osatzen dute. Zikloetara informazioa, egin beharreko lanak, hartutako erabakiak eta abar helaraztea da bere ardura. Bestalde, zikloetan hartutako erabakiak beste zikloekin elkarbanatzeko eta erabaki bateratuak hartzeko.

Lau ziklotan banatuko da irakasleria: HH, LH1, LH2 eta LH3.

#### **Zikloak**

Batzorde Pedagogikoan aipatutako gaiak eta hartutako erabakiak irakasleriari helarazteko. Partaide diren irakasleek hartutako erabakiak, ardurak, lanak, kezkak eta abar Batzorde Pedagogikora eramateko.

#### **Mailak**

Ikasleekin egingo diren lan eta ekintz konkretuak elkarrekin adostuz hauek aurrera eramateko.

Beste talde batzuk: A21, Hezkidetza, Normalkuntza, ebaluazio diagnostikoa... Ikastetxeko Berrikuntza Proiektuak aurrera eramateko eta jarraipen bat egiteko.

## **TUTORETZAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK**

1. Taldea aukeratzeko orduan irizpiderik garrantzitsuena ikasleen/taldearen ONURA izango da, horretarako, irizpide pedagogikoak hartuko dira kontuan (azken erabakia ikasketa buruak izango du).
2. Ez dira bateragarriak izango Idazkaritza eta haur hezkuntzako HH 2 eta HH 3 urteko gelak.
3. Tutorea bere taldearekin zikloa bete arte jarraitzea errespetatuko dugu.
4. Antzinasuna ikastetxean.
5. Erregistro zenbaki pertsonala
6. Zuzendaritzak, ikastetxearen, ikasleen zein irakasleen beharrianak ikusita, irizpide hauetan oinarritzen ez diren erabakiak har ditzake.

## **ORDUTEGIAK**

Haur hezkuntza zein lehen hezkuntzako talde/maila bakoitzarentzako tutore bana dago. Ordutegia egituratzeko lehenetasun asko hartzen dira kontutan: zuzendaritza taldeko lanetarako orduak, normalkuntza teknikaria eta batzordea, Agenda 21eko arduradunarena eta batzordearena, Berritzeguneko mintegietara (ingelera, musika, gorputz hezkuntza, Eskola 2.0, IKT arduraduna, haur hezkuntza, eta Hezkidetzak) joateko denbora, informatika arduraduna eta IKT batzordea, beharrian bereziak dituzten umeen laguntzak, ume batzuen logopedia eta hizkuntza indartzeko beharrianak, fisioterapia...

## **IKASLEEN TALDEKATZEA**

Ikastetxean eredu bakarra dago (D). Eskola bi lerrorantz doala esan daiteke.

Taldekatzeak 2urteko gelan egiten dira, 3 urteko gelara doazenerako moldaketak egin ahal direlarik. HH 5 urtetik lehen hezkuntzako 1. Ziklora pasatzean talde berriak egiteko aukera dago (Salbuespenak dauden kasuetan aurrerago moldaketaren bat egin ahal izango litzateke. Proposamenak- Lh 1. mailatik Lh 2. mailara doazenean aldatu, ez Lh 1. mailara datozenean - irizpideak berrikusi eta modifikatu). Talde hauek egituratzeko eskolak dituen irizpideak kontutan hartuko dira.

2 urteko gelako taldeak egin baino lehen ezinbestekotzat jotzen dugu ekainean batzar bat egitea Haurreskolako irakasleekin.

## **JOLASTORDUEN ANTOLAMENDUA**

Jolastorduaren ordutegia 11:00etatik 11:30etara da.

Lau esparrutan banatuta daude:

- ❖ HH2
- ❖ HH3, HH4 eta HH5
- ❖ 1go, 2. eta 3. mailak
- ❖ 4. , 5. eta 6. mailak

## **EBALUAZIOA**

Kurtso hasieran ezinbestekoa da gurasoekin batzar orokor bat egitea 2 urtetik 6. mailara arte.

Haur Hezkuntzan, ikasturtean zehar bi aldiz banakako bilerak egingo dira familiekin.

Lehen Hezkuntzan, hiru ebaluaketa txosten bidaliko dira. Kurtso amaieran banakako bilerak egingo dira familiekin.

Dena dela, maila guztietako guraso eta irakasleek aukera daukate asteazkenero elkartzeko.

## **LAGUNTZA EDO ERREFORTZUEN ANTOLAKETA.**

CEIP ZALDIBAR LHI ikastetxeko irakasleen ordu berdeak ikasleei laguntzak ematera bideratuko dira.

### **KOMUNEAN DITUGUN LEKUEN BANAKETA**

Komunean ditugun lekuen banaketa lehentasunen arabera egingo da. Talde bakoitzak kurtso hasieran egindako ordutegiak kontutan hartuko dituelarik.

Eskola komunitateko beste partaideek aukera izango dute leku amankomun hauek erabiltzeko, beti ere, ikasleek ez badute erabili behar.

### **BALIABIDE DIDAKTIKOEN BANAKETA.**

Aurreko puntuarekin erlazionatuta dagoenez, horren arabera banatuko ditugu. Gehienetan eskarien arabera antolatzen da banaketa hau. Kamerak (bideoa, argazki makina) proiektoreak, ordenadore eramangarriak... eskariaren arabera erabiltzen dira, eta lehentasunak aztertu ondoren, beharizan guztiei erantzuten saiatzen gara.

### **ERABATEKOEN ORDUTEGIA.**

**ASTELEHENEAN:** Zikloko bilerak

**ASTEARTEAN:** Lan taldeak. HH: IHP, konpetentziak, harrera plana LH: Harrera plana, IHPfrogak, proiektuen egokitzapena, IKT eta banakako formazioa, Inklusioa.

**ASTEAZKENEAN:** Gurasoak/ ziklo / mailako bilerak

**OSTEGUNEAN:** Klaustroak/ Batzorde pedagogikoa /Bakarkako lana.

**OSTIRALETAN:** Gelak/ Koordinazioa/ Koordinazioa: Tutore eta PTE / HIPI, IKT, harrera plana, arauak-.

Batzuetan irakasleen formakuntza saioak ere erabatekoetan egiten dira.



#### **4.2.2 Parte hartzeko eredua**

Ikastetxe anitza nahi dugu, irakasle, ikasle eta eskola komunitatea osatzen duten persona guztien arteko lankidetzan oinarritua. Hezkuntza komunitate osoaren ekarpenak biltzen dituena. Hainbat taldetan elkarlana eginez, ikastetxeko proiektuak aurrera ateratzen ditugu.

#### **4.2.3 Bizikidetzat**

Gure ikastetxearentzat hezkuntza komunitatearen ongizatea eta elkarbizitza printzipioak ezinbestekoak dira. Bertan indarkeriarik gabe gatazkak konpontzeko jarduerak aurrera eramaten dituena eskola komunitate osoak parte hartzen duena eta elkarbizitza batzordeko partaideek ezarritako arauak errespetatzen dituena, eskubide eta betebeharretan oinarritutakoa.

Elkarrizketaren eta bitartekaritzaren bidez (aho belarri metodoa), gatazkei aurre egiteko eta hauek eraldatzeko inguru eta erkide jasangarria behar dugu. Eragile guztiek indarrak batuta lan egingo duena. Bertan jatorri, genero, etnia, sinismen, maila sozio ekonomikoa eta nahi afektibo sexualen arrazoiengatik sortutako bidegabekeriak eta diskriminazioak onartuko ez dituena.

## **5. INDARRALDIA ETA MANTENTZEA**

---

Dokumentu honek, ikastetxean sortzen diren beste agiri guztiek bezala, dinamikoa izan behar du; ebaluazioak, beraz, erabakiak gaurkotzeko, berrikusteko eta moldatzeko aukerak eman behar ditu.